

Getxo >MEETING<



Abenduak 15 2022ko balantzea

Enpresa bat baduzu eta zalantzatan bazaude urteko balantzea egin ala ez, hemen duzu informazio erabilgarria.

Zergatik da garrantzitsua balantze ekonomikotik haratagoko balantzea egitea?

- Enpresek oreka finantzarioa behar dute, baina baita pertsonak zaintzea ere. Zu bakarrik izanez gero ere bai.
- Negozioek helburu estrategikoetara iritsi behar dute, eta ez beti helburu ekonomikoetara eramanda. Adibidez, zerbitzu berri bat abiaraztea edo publiko desberdin batengana jotzea pentsatu duzunean.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica

Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140

getxolan@getxo.eus • <https://www.getxo.eus/promocion-economica>

Jarrai gaitzazu: / Síguenos en:



- Dirua bakarrik neurtzen badugu, emaitza ekonomiko onak lor ditzakegu, baina taldea erabat nekatuta. Horrek epe ertainean osasun mentaleko edo fisikoko arazoak eragin ditzake.
- Emaitza ekonomiko itxuraz diskretuek porrot-sentsazioa eman dezakete beste faktore batzuk kontuan hartzen ez badira, hala nola helburu estrategikoak lortu izana.

Zer galdera egin ahal dizkiot neure buruari urtea baloratzeko?

- Helburu ekonomikoak: zenbat fakturatu dudan, zein izan den nire soldata, zenbat gastatu dudan, irabaziak, inbertsioak, etab.
- Inpaktu-helburuak: zer lortu duten nire bezeroek nire lanari esker.
- Nork bere burua zaintzeko helburuak: zer neurritan zaindu dudan nire osasun mentala, fisikoa eta emozionala. Zein neurritan hartu dudan atsedean, behar bezala jan, deskonektatu.
- Zein aukera berri aztertu ditudan nire lanean.
- Ikaskuntzak.

Zer ondorio izan ditzake gutxieneko balantzea egiteko tartea ez hartzeak?

- Orain pentsatzeko tarte bat hartzen ez baduzu, “modu automatikoan” jarraituko duzu, erabaki txikietan, baina zergatik erabakitzen ari zaren aurreikusi gabe. Horrek, epe ertainean, orientaziorik eza, estrategiarik eza ekar dezake.
- Lortutakoa ospatu gabe aurrera jarraitzeak hasieran balio dezake, baina monotonía edo motibazio falta eragin diezazuke. Gogoratu zu zarela zure enpresaren motor nagusia.
- Balantzea ez egiteak hilabete batzuetan aurrera egiteko balio dezake, baina litekeena da orain zeregin horri heltzen ez badiozu, laster faltan sumatzea perspektiba hartzea eta harro behatzea sarritan oharkabean pasatzen diren lorpen txikiak.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica

Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140

getxolan@getxo.eus • <https://www.getxo.eus/promocion-economica>

Jarrai gaitzazu: / Síguenos en:

